



Irakurketa lantzen

Belar-ilearen ipuina



Gure herriko ile-apaintzaileak **ile-zapa** ikaragarria zeukan, ile ugari eta ederra. Oso **harro** zegoen bere ileaz, eta sarri askotan aldatzen zuen orrazkera. Baina, **egun batean**, ilea erortzen hasi zitzaion, eta **burusoil** geratu zen. Marka eta mota guztietakoak probatu bazituen ere, **ez zuen aurkitu xanpurik ezta ilea ateratzeko loziorik bere arazoa konponduko zionik**.

–Nola liteke, ile-apaintzailea eta burusoila! Zer pentsatuko ote dute ile-apaindegira datozen bezeroek? –esaten zion bere buruari.

Etsita, **ileorde bat jartzeko erabakia hartu zuen**, baina, hala ere, ezin zuen burutik kendu ile-apaintzaile burusoila besterik ez zela, eta oso **zorrigaiztokoa** sentitzen zen.

Gizona egunetik egunera gero eta **goibelago** ikusita, emaztea **errukitu** egin zitzaion, eta **pentsatu** zuen:

–Ahal den guztia egin beharra dago senarrari laguntzeko!

Pentsatu eta egin. **Senarra** konturatu gabe, landareentzako **ongarria** nahasi zion haren ile-lozioari.

Oi, miraria! **Handik** astebetera, ile-apaintzaileari belardi polit bat, berde-berdea, hazi zitzaion buruan.

Jendeak harrituta eta **miretsita** begiratzen zion kalean:

- Hori da hori ile polita!
- Bai, bai. Hain da naturala!
- Neuk ere eduki nahi nuke horrelako belar-ileal!
- Baita neuk ere...

Arrakasta handi-handia izan zuen belar-ileak, eta moda-modan jarri zen. Denek izan nahi zuten horrelako belar-**adatsa**! Baina, zoritxarrez, belar-ileak ez zen buru guztietan hazten; buru soil-soiletan hazten zen bakarrik. Horregatik, **berezko** ilea zutenek ileorde berdea jarri edo ilea berdez tindatu beste erremediorik ez zuten izan. Ahalegin handiak eginda ere, berehala igartzen zen nork zeukan benetako belardi-burua eta nork ez, jakina, eta **jendeak inbidia handia pasatzen zuen benetako belarrez apaindutako bururen bat ikustean.**

Baina, ez pentsa, buruan horrelako **zelaia** izateak bazituen bere alde txarrak ere!

Benetako belar-iledunek kontu handiz ibili behar zuten behiekin, zaldi eta **behorrekin**, ardiekin eta bestelako animalia belar-jaleekin.

Ezin ziren mendian lasai ibili. **Eta, gainera, ez ziren zoora sartu ere egiten.** Izan ere, kanguru handi batek buruko belar-ile guztia jan zion behin gizon bati, eta burusoil utzi zuen berriz.



Ursula Wölfel (moldatua)

• Erantzun galderei. Ez larregi luzatu eta esaldi osoak idatzi.

- ❖ **Nolako** ilea zeukan lehen gure herriko ile-apaintzaileak?



- ❖ **Zer** gertatu zitzaion egun batean?



- ❖ **Zer** egin zuen arazoa konpontzen saiatzeko?



- ❖ **Zerbait** lortu zuen?



- ❖ **Nork** lagundu zion bere arazoa konpontzen?



• **Esan** esaldi hauek **egia ala gezurra** dioten.

- ☐ Herriko jendeari ez zitzaion batere gustatu ile-apaintzailearen belar-ilea.

- ☐ Belar-ilea buru soil-soiletan hazten zen bakarrik.

- ☐ Horregatik, jendeak buruko ile guztia mozten zuen, belar-ile berdea eduki ahal izateko.

- ☐ Azkenean, den-denek lortu zuten belar-ilea izatea.

- ☐ Belar-ilea izateak ere bazituen bere alde txarrak.

- ☐ Mendian zegoela, ahuntz batek belar-ilea jan zion gizon bati, eta burusoil utzi zuen berriz.

• **Lotu** esapide hauek **esanahi zuzenekin**.

burutik egon

burutik kendu

burura etorri

buruan hartu

ahaztu

kontuan hartu

zoraturik egon

gogoratu

• **Idatzi hitzak** -TZAILE atzizkia erabiliz.

- Ilea moztu eta orraztu egiten duena:



- Zerbait antolatzeaz arduratzen dena:



- Edozein salgai saltzen duen pertsona:



- Etxeak, dendak... apaintzen dituen:



Euskara ARIN-ARIN 3. mailako liburutik egokitua

